01 22

CASTEJON GAINEKO HERRIXKA

Castejon Gaineko Herrixka Nabaridasko hiriguneko hegoaldetik 500 metrora kokatuta dago. A 3212 errepideak zehakartzen du eta azken hura hobetzeko lanak zirela eta, hainbat arkitektura prospekzio egin behar izan da. Horiek ortoargazkien bidez ikus daitezke. “Castejon Gaina” izeneko muino eta hura inguratzen duten lurraldetatik hedatzen da.

Herrixka hura ezagutu, ezagutzen zen, baina hari buruzko informazioa oso eskasa zen. Arkeologia esku-hartzea bi etapetan zatitu zen. Lehenengoa 2009ko azaroaren eta 2011ko uztailaren artean egin zen eta bigarrena, berriz, 2013 eta 2014. urteen artean.


Lehenik eta behin zonaldeko arkeologia prospekzioa burutu zen, ondoren balorazio zangak egin ziren, eta gero, emaitza positiboak izan zituzten errepidetik gertuko bi zonaldeetako osoko indusketari heldu zioten (1 eta 2) eta baita lan areatik urrun zeuden beste zonaldeetako zundaketa ere (3 eta 4. zonaldeak). Horrez gain, zundaketa zabal bat ere burutu zen (60x 4m) zanga moduan, muinoko ipar mendebaldeko magalean, 3. zundaketaren barruan. Argi geratu behar da A-3212 errepidetik gertuko guneak izan ezik, ez dela indusketarik egin herrixkan, baizik eta hainbat lagin egin ziren, horietako batzuk nahiko zabalak, induskatutako zonaldean eremua hobeto zehazteko helburuarekin.

José Manuel Martínez Torrrecillak zuzenduriko lanetatik ondorioztatu da okupazio sekuentzia honako hau izan zela:

Neolitikoa: Udare formako bi zulo aurkitu ziren, 3.600. urtekoak, K.a.




Hiri ortoargazkia 2007-2009 Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoeuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 530767.0923 // Y: 4709620.3155 // Z: 537 m. Arkeologia esku-hartzea gutxi gorabehera eremutan banatzea (Torrecilla, 2011 oinarri hartuta). 1. zonaldea: Muinaren ekialdean, obrek partzialki desmuntatu zuten kai-mutur harritsuaren iparraldean. 2. zonaldea: muinaren ekialdean, kai-muturraren iparraldean. 3. zonaldea: muinaren goi terraza osatzen duen zonalde laua. 4. zonaldea: 1 eta 2. zonaldeen artean kokatutako kai-muturraren goi aldea. 6. zonaldea: errepide zaharraren ekialdean eta beheko aldean. 7. zonaldea: murrinaren iparraldean eta errepidearen mendebaldean kokatutako lautada. Ortoargazkia arkitektura esku-hartzea burutu baino lehenagokoa da.



3. zonaldeko zeharkako sekzioa (AB) (Lurraldeko profila. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi).


Ortoargazkia 2011. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.

Argi ikus daitezke 1 eta 2. zonaldean burututako indusketa zabalak (bertan erregistratutako egiturak atzematen dira), eta baita ere 3. zonaldean egindako bost zundaketak (muina), 4. zonaldeko kai-muturrean egindako bat. Horrez gain atzeman daiteke ere indusketetako langileek egindako bidexkek lurraldean egindako markak, zundaketa batetik bestera joaten zirenean.





Ortoargazkia 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. PNOA. Oraindik zundaketak ikusten dira muinean (3), eta baita 2. zonaldeko eraikuntzen egiturak ere (xehetasunean zabaldu egin dira).



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Bi urte beranduago, muineko laginak disimulatu egin dira. 1 eta 2.a, dagoeneko estalita daude eraikuntza faseko errepidearen inguruan. 2012ko ortoargazkiari dagokionez, 60 x 4 metroko (3) zundaketa nabarmentzen da. Hura ipar mendebaldeko magalean egin zen muineko mendi-hegalean garatutako hirigintza garapena aztertzeko.





Castejon Gineko Herrixkako 2. zonaldeko egituren marrazkia. Bertan, urbanizatutako gunearen faseak irudikatu dira. Iturria: Alto de Castejón / José Manuel Martínez Torrecilla. - En: Arkeoikuska / Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Kultura Ondareko Zentroa. - 2011, p. 119.



Castejon Gaineko Herrixka (2. zonaldea) indusketan. Lehenengo planoan 2. faseko gelen egiturak. Iturria: Alto de Castejón / José Manuel Martínez Torrecilla. - En: Arkeoikuska / Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Kultura Ondareko Zentroa. - 2011, p. 120.

Brontze aro amaiera / Burdin aro hasiera: herrixkari berari dagokio. Indusketaren egileek herrixka bikain eta nahiko kontserbazio egoera onean zegoela esan zuten. Haien esanetan, okupazioa IX eta V. mende artekoena izan zitekeen, K. a.

Erromanizazioa: Uste da nekazariak kokatu zirela (I – IV. mendeak K.o.) inguruetan (ziur aski 7. zonaldean), bertan “Sigilata Hispánica” zeramika aurkitu baita.

Zehaztugabea: Zehaztu gabeko datadun harrizko dorre baten egiturak aurkitu ziren. Aipatu behar da ere lurrak landatzeko eraikitako terrazen euste-hormak aurkitu direla eta horiek duela gutxiko garai batekoak zirela.

Herrixka.

Herrixkari berari dagokio (Brontze aro amaiera / Burdin aro hasiera) eta indusketa zabalak egin ziren bakarrik errepidea handitzeko esku-hartzeak eragindako zonaldeetan:

Zonaldean (1000 m2), arkeologoek herrixkako bi fase desberdineko egiturak aurkitu zituzten:

Lehenengo fasea planta zirkularreko edo obaleko hainbat etxoletako egiturek eratuta dago. Horiek harri-hormazko zokaloez eta, ziur aski adobeko hormez osatuta zeuden.

Bigarren fasean hirigintza sistema berri bat sortu zen (aurrekoaren desberdina), induskatutako eremuko iparraldean. Hemen bereizi dira guneak eta erabilpenak antolatzeko antzeko eredua edo eskema duten 4 gela laukizuzen: mehelinen eta atzeko harresia partekatzen zen, beraz, horrek adierazten digu eraikuntza esfortzu erabili zela.

Ziur aski etxeko eremuei zegozkien. Horiek sarrera independentea zuten hegoalderantz, gela bakoitzerako eta baita etxebizitza nagusi bat ere.

Une jakin batean, gela laukizuzenak erreformatzen dira, eta terrazadun azalera berri bat sortu zen gelen hegoaldera begira. Ondorioz, aurreko faseko egiturak amortizatu ziren eta etxebizitza eremukoa ez zen esparru bat sortu zen. Bertan, bi labe funtzionamenduan jarri ziren, baina ez da ezagutzen zertarako erabiltzen ziren.

3. zonaldean (muina) bost zundaketa egin ziren (lau positibo). Horiez gain, seigarren bat egin zen, 60 m luzera eta 4 m zabalera zuen lubaki baten bitartez, ipar mendebaldeko magalean. Bertan, mailakatutako etxebizitzak azaleratu dira (induskatuta atzeko aldean eta euste-hormarekin aurreko aldean). Bertako behe harresia ziur aski defendatzeko erabiltzen zen.

Gehiago jakiteko: Poblado del Alto de Castejón. Iturria: Alto de Castejón / José Manuel Martínez Torrecilla [et. al.]. - En: Arkeoikuska / Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Kultur Ondareko Zentroa. - 2011, 2013 eta 2014. urteak.



2. zonaldeko gela biribilen egiturak (1. fasea). Iturria: Alto de Castejón / José Manuel Martínez Torrecilla. - En: Arkeoikuska / Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco, Kultura Ondareko Zentroa. - 2014, p. 111.



Muineko ipar mendebaldeko magalean egindako lubaki itxurako zundaketa (3. zonaldea). Lehendabizi, beheko harresia: uste da defendatzeko erabiltzen zela. Gorago, ondoz ondoko inausketak eta harresiak ikus daitezke. Horiek eraikinak muinaren magalaren maldara egokitzen erabiltzen ziren.